



2011-03-21

Xabier Leteri omenaldia Poesiaren Nazioarteko Egunean

REDACCIÓN /BILBAO

Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak Poesiaren Nazioarteko Eguna ospatuko du gaur, joan den abenduan hil zen Xabier Leteri poeta eta kantautore euskaldunari eskainitako poesia errezitaldiarekin. Hitzordua Bidebarrietako liburutegian izango da, arratsaldeko 19.30etatik aurrera.

Duela hamarkada batetik, martxoaren 21ean Poesiaren Nazioarteko Eguna ospatzen da mundu osoan. Egun hori Unescok bultzatzen du, herrialde guztietan poesiaren inguruan egiten diren jarduerak eskertzeko eta poesia oinarritzeko kultura forma gisa sustatzeko.

Ibone Bengoetxea Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza zinegotziak hasiko du Leteren omenezko ekitaldia. Omenaldia 'Xabier Leteri, ahots bizian' izenburuko poesia eta musika errezitaldia izango da, eta egilearen testuetara eta musika-lanetara hurbilduko da, bere adiskide eta kolaboratzaile gertukoak izan zirenen eskutik, hala nola Karlos Jimenez piano-jotzailea, Joserra Gartzia idazlea edo Joxan Goikoetxea eta Antton Valverde musikariak, besteak beste.